



Bizkaiko Batzar Nagusiek ez dabe onetsi eraso matxistak prebenitzeko aplikazio mobikorra ezartearen gainean Podemos taldeak aurkeztu dauen Arauz Besteko Proposamena

Bizkaiko Batzar Nagusietako Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasunerako Batzordeak ez dau onetsi gaur goizean Podemos taldeak aurkeztu dauen Arauz Besteko Proposamena “indarkeria matxista egoeretan esku hartzeko denporea murrizteko helburua eukiko leuken tresna telematikoa garatzeko”. Ekimenak Aldundiko Gobernuaren eusten daben taldeen osotasuneko zuzenketa-eske bat eta EH Bilduren beste bat eukazan, baina talde politiko guztiek lakra horren kontrako burrukan fondoko adostasuna erakutsi daben arren, ezin izan da adostutako testurik lortu.

Eneritz De Madariaga Podemos Bizkaia taldeko bozeroaleak adierazo dauenez, Bizkaian eta Euskadin sexu erasoek gora egin dabela erakusten daben estadistikak ikusita, beharrezkoa da horreek prebenitzeko neurri eraginkorrak eta egokiak ezartzea eta, halan danean, erasotzaileak jazartea eta atxilotzea. Teknologia barriek tresna eraginkorrak eskintzen ditue, Durangon, Iruñean edo Tenerifen aurrera eroan diran ekimenetan ikusi ahal izan dan moduan. Funtzino horreek daukazan mobikorrerako APP bat sortzeko eta garatzeko Bilbon aho batez hartu dan akordioa be aitatu dau.

Batzarretako talde horren Arauz Besteko Proposamenaren testuak tresna telematikoa garatzea eskatzen eutsan Bizkaiko Foru Aldundiari, ikuspegi feministatik diseinetzea eta esku hartzeko protokoloa prestetea, alerta mezuen aurrean arretea espezializaua eskintzea eta APParen existentziaren barri zabaltzea.

Batzarretan ordezkartzea daukien talde guztiak bat etorri dira eraso matxisten arazoaren larritasuna azpimarratzean, baina ez dira ados jarri neurri zehatzak ezarteko orduan. Holan, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek osotasuneko zuzenketa-eskeak aurkeztu dabe Podemosen proposamenaren aurrean. Talde horreetako bozeroaleak bat etorri dira arazoaren azterketan, baina adierazo dabenez, euskal udalak batzen dituan EUDEL alkartean gauza bera bilatzen dauen ekimena ari da gauzatzen. Hori dala eta, euren ustez egokiagoa da Aldundiak udalen alkarrearen ekimena bultzatzea, esfortzuak bikoiztu beharrez.

EH Bilduren aldetik, Maria Jesus Padrones bozeroaleak osotasuneko beste zuzenketa-eske bat defendidu dau, bere eretziz, Podemosen proposamena “ez datorrelako bat ikuspuntu feministeagaz, emakumea biktima bilakatzen dauelako, ahaldundu beharrez, eta bildurraren diskurtso paternalistea emoten dauelako”. Bere eretziz, aurkeztutako ekimena “ez dator bat estrategia integral batez, eta ondorio negatiboak izan leikez, ardurea, barriro be, emakumearen gainean izten dauelako”. Talde horren alternatibak proponiduten ebanez, Batzar Nagusiek berretsi egin beharko leukie lehentasunezko gaia dala, eta Aldundiari eskaria egiten eutsan, zeharkako diagnostikoa eta partaidetzan oinarritutako prozesua aurrera eroateko, indarkeria matxistea baztertuko dauen estrategia integrala lantzeko. Horrez gain, Eusko Legebiltzarrak, gai horren inguruko lege propioa gauzatzearen alde agertu da.

Bizkaiko Talde Popularra eta Talde Mistoa bat etorri dira emakumeen kontrako indarkeriaren fenomenoaren larritasuna diagnostiketako orduan. Lehenengo taldeak adierazo dauenez, ekimen guztiak beharrezkoak eta positiboak dira, arazoak irauten dauen bitartean, eta bigarren taldeak, esfortzuak bateratzea eta holango tresna teknologikoak adituek diseinetzea beharrezkoa dala azpimarratu dau.

Proposamena aurkeztu dauen taldeak ez dau onartu osotasunerako aurkeztu diran zuzenketa eske bietatik bakarra be eta, hori dala eta, jatorrizko proposamena bozkatu da. Aldeko boto bakarrak Podemos Bizkaia taldearen ordezkari biek emondakoak izan dira, eta Talde Mistoaren, Bizkaiko Popularren eta EH Bilduren bost abstentzinoak eta Euskal Sozialistak taldeko batzordekide bien eta Euzko Abertzaleak taldeko zazpien kontrako botoak jaso ditu.

NOTA DE PRENSA

02/02/18

Las Juntas Generales de Bizkaia rechazan una Proposición No de Norma de Podemos sobre implantación de una aplicación móvil para prevenir ataques machistas

La Comisión de Empleo, Inserción Social e Igualdad de las Juntas Generales de Bizkaia ha rechazado esta mañana una Proposición No de Norma del grupo Podemos para “desarrollar una herramienta telemática con el fin de reducir el tiempo de intervención en las situaciones de violencias machistas”. La iniciativa contaba con una enmienda a la totalidad conjunta por parte del los grupos que sustentan al Gobierno de la Diputación y otra por parte de EH Bildu pero, a pesar del acuerdo de fondo de todos los grupos políticos en torno a la lucha contra esta lacra, no ha sido posible alcanzar un texto de consenso.

La portavoz de Podemos Bizkaia Eneritz De Madariaga ha argumentado que la estadística de incremento de las agresiones sexuales en Bizkaia y en Euskadi obliga a implantar medidas efectivas y adecuadas para prevenirlas y, en su caso, perseguir y detener a los agresores, y que las nuevas tecnologías ofrecen herramientas efectivas, como se ha puesto de manifiesto en iniciativas llevadas a cabo en Durango, Pamplona o Tenerife. Ha mencionado asimismo el acuerdo unánime adoptado en Bilbao para la creación y desarrollo de una APP para el móvil con estas funciones.

El texto de la Proposición No de Norma de este grupo juntero instaba a la Diputación Foral de Bizkaia a desarrollar una herramienta telemática, diseñarla y elaborar un protocolo de intervención desde una perspectiva feminista, brindar una atención especializada a los mensajes de alerta y difundir la existencia de la APP.

Todos los grupos políticos representados en la Cámara han coincidido a la hora de considerar la gravedad del problema de las agresiones machistas, pero han diferido a la hora de establecer medidas concretas. Así, por parte de Nacionalistas Vascos y de Socialistas Vascos, la proposición de Podemos ha inducido a presentar una enmienda a la totalidad. Sus portavoces han coincidido en el análisis de la problemática, pero han señalado que la asociación de municipios vascos EUDEL ya está llevando a cabo una iniciativa en el mismo sentido, por lo que consideran más oportuno que la Diputación la apoye en lugar de duplicar esfuerzos.

Por parte de EH Bildu, su portavoz María Jesús Padrones ha defendido otra enmienda a la totalidad, por considerar que la propuesta de Podemos “no coincide con el punto de vista feminista, victimiza a la mujer en lugar de empoderarla, y fomenta un discurso paternalista del miedo”. En su opinión, la iniciativa presentada “no se atiene a una estrategia integral, y puede tener consecuencias negativas al dejar la responsabilidad de nuevo en manos de la mujer”. Su alternativa proponía que las Juntas Generales reafirmen que se trata de una cuestión prioritaria, instaba a la Diputación a desarrollar un diagnóstico transversal y un proceso participativo para una estrategia integral que erradique la violencia machista, además de apoyar que el Parlamento Vasco desarrolle una ley propia en esta materia.

Grupo Popular Vizcaíno y Grupo Mixto han coincidido a la hora de diagnosticar la gravedad del fenómeno de la violencia contra las mujeres, destacando el primero que todas las iniciativas son necesarias y positivas en tanto el problema persista, y el segundo la conveniencia de aunar esfuerzos y de que este tipo de herramientas tecnológicas sean diseñadas por personal experto.

El grupo proponente no ha aceptado ninguna de las dos enmiendas de totalidad, por lo que se ha procedido a la votación de su propuesta originaria, que ha contado con los únicos votos a favor de las dos representantes de Podemos Bizkaia, la abstención de los cinco integrantes de Grupo Mixto, Popular Vizcaíno y EH Bildu, y el voto en contra de los dos junteros de Socialistas Vascos y de los siete de Nacionalistas Vascos.